



ESKOLAKO OHARRAK

INAUTERIAK

Duela egun batzuk jakinarazi genizuen bezala, eta gure eskolako ohiturei jarraituz, ostiralean inauteriak ospatuko ditugu eskolan. Ikasle bakoitza etor dadila nahi duen bezala mozorrotuta. Ohiko goiz eta arratsaldeko ordutegia izango dugu. Azkenik jakin, datorren astelehena eta asteartea, otsailak 15a eta 16a jai izango direla eskolan.



ESKOLA KIROLA

Dakizuen bezala, Oiartzun edozein unetan COVID19ko zonalde gorria izatera pasa daiteke. Hori dela eta, gure eskolako orduz kanpoko ekintzatan aldaketa txiki batzuk egin behar izan ditugu. "Eskola Kirola" "Eskola Fit" izatera pasatuko da. "Eskola Fit" zona gorrian sartzen garenean eskola kirola ordezkatu duen proiektua da. Proiektu honek, mugimendu fisikoa oinarri du, baina kirol kutsutik aldentzen da, aisi jolasak eta zainketa aktibo bat sustatuz. Ordutegia eskola kirolekoaren bera izango da eta zonalde gorrian sartzean zuzenean jarriko da martxan Eskola Fit. Herria zonalde naranjara itzultzean, automatikoki eskola kirolera itzuliko gara berri ere.



ZORRIAK

Mesedez eskatzen dizuegu familia guztiei zuen seme-alaben buruak ongi begiratzeko; eta zorririk edo bartzarik izango balute tratamendua egiteko, denon artean zorriak eskolatik desagertarazteko. Eskerrik asko



APARKALEKUA

Familia guztiei gogorarazi nahi dizuegu, eskolako aparkalekua eskolako langileek soilik erabili dezaketela, bai goizez bai eta arratsaldez ere.



Informazio gehiago: www.elizalde.eus y www.elizaldekogurasoelkarte.blogspot.com.es